

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Kultura

2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta berriazko oinarriak

2019ko maiatzaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta berriazko oinarriak.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 24an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei dirulaguntzak emateko deialdia arautzen duten berriazko oinarriak

2018ko abenduaren 28an, Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn (19. zenbakia) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

1. Dirulaguntzen ildoak

Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeentzako dirulaguntzak.

2. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da 2019an Andre Maria Zuriaren jaietan blusa eta neska taldeen parte hartzea bultzatzeko dirulaguntzetarako deialdia eta horiek emateko modua arautzea; Gasteizko Udalak emango ditu horiek, bere aurrekontuko kredituen kontura.

3. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Kontzeptu hauetarako dirulaguntzak emango dira:

- Musika girotea: espazio publikoan taldeei laguntzen dieten musikariak, zuzenean jotzen dutenak.
- Aurkeztutako jai-programa osatzen duten jarduerak egiteko ezinbestekoak diren materialak edo azpiegiturak alokatu edo erostea.

Ez da dirulaguntzarik emango gastu hauetarako:

- Janaria edo edaria.
- Bileretara joateak sortutako gastuak.
- Erregaien gastuen kasuan, bakarrik onartuko dira desfileetan parte hartzeak sortutakoak.

4. Eskatzaileak

Gutxienez bost blusa eta neska talde ordezkatzeko dituzten pertsona juridikoak izan ahalko dira araudi honetan araututako dirulaguntzen onuradun, aurrez hala eskatzen badute, eta baldin eta elkarte gisa legez eratuta eta dagokien erregistro ofizialean erregistratuta badaude eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren barruan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun-egoeran gauzatzea galarazten duten elkarrekin, salbu eta, emakumeek bakarrik osatutako taldeak izanik, erabakiak hartzeko partaidetza-esparruetan ordezkaritza txikiegia izateagatik emakumeek jasaten duten ezberdintasuna zuzentzeko helburua badute.

Izan ere, euskal administrazio publikoek ezin diete inolako laguntzarik eman onartze-prozesuan edo jardunbidean bereizkeria egiten duten elkarte eta erakundeei (4/2005 Legearen 24.2 artikulua).

Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, entitate eskatzaileek betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki beharko dituzte. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

5. Aurrekontu-kreditua eta gehieneko zenbatekoa

Deialdi honen ildotik ematen diren dirulaguntzak 2019ko aurrekontuetako 2312.03.3381.489.11 partidaren kontura joango dira, zeinak 87.000,00 euroko kreditua baitu.

6. Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokitzuz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

7. Eskabideak aurkeztea

Gasteizko Udalaren web-orrian agertzen den eredia baliatuz aurkeztuko da eskabidea, agiri hauekin batera:

— Elkarrekin estatutuen fotokopia eta elkarte legez eratuta dagoela eta dagokion erregistro ofizialean izena emanda dagoela egiaztatzen duten agiriak, Kultura Zerbitzuari dirulaguntza lehenengo aldiz eskatzen badio.

— Banku-entitate baten egiaztagiria, kontuaren zenbakia eta titularraren izena agertzen dituen —elkarrekin berak izan behar du titular eta ez pertsona fisiko batek—, Kultura Zerbitzuari dirulaguntza lehenengo aldiz eskatzen badio.

— 2019ko Andre Maria Zuriaren jaietan eta Santiago egunean (uztailak 25) espazio publikoan egin nahi den jardueraren programa.

Programa osatzen duten jarduerak guztiak deskribatuko dira banan-banan, gutxienez alderdi hauek zehaztuz: jardueren azalpena, kokapena, antzinatea eta hartzaileak (III. eranskineko ereduari jarraituz).

— Entitate eskatzailea osatzen duten eta 2019ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko asmoa duten blusa eta neska taldeen zerrenda (I. eranskineko ereduari jarraituz).

— Talde bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, oinarri hauetan ezarritako gutxienezko kide kopurua betetzeari dagokionez (II. eranskineko ereduari jarraituz).

8. Dirulaguntza jasotzeko betekizunak eta irizpideak

Nolanahi ere, onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Entitate eskatzaileek gutxienez bost blusa eta neska taldek osatuak izan beharko dute.
- Blusa eta neska taldeztat joko da gutxienez hirurogei kide dituen, musika girotzea duena, eta jaietako egun guztietan eta Blusa eta Nesken Egunean ateratzen dena.

Hala ere, salbuespenez eta alde zuzenetik berariaz baimena emanda, talde batek kideen gutxienera kopurura ez iristea onartuko da, baldin eta historikoki Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartu badu.

- Entitate eskatzaileek Blusa eta Nesken Egunerako zein Andre Maria Zuriaren jaietarako jarduera-programa aurkeztu beharko dute.

Jarduera horiek herritarrei oro har zuzendutakoak izan beharko dute nahitaez, eta zerikusia duten eta indarrean dauden udal planak eta legezko araudiak bete.

Bereziki balioetsiko dira genero-berdintasuna sustatzen duten jarduerak, ikuskizunak, kontzertuak edo bestelako jarduerak, espazio publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin laguntzen dutelarik. Orobat, emakumeen partaidetza bereziki sustatzen dutenak, eta jaietan edonolako indarkeria matxista prebenitzeko eta horrelako kasuetan esku hartzeko baliabideak garatu, ezarri eta hobetzea dakartenak. Ildo horretatik, eta blusa eta neska taldeek egiten duten lana aitortzearen, indarkeria matxistaren prebentzioa, identifikazioa eta tratamendua helburutzat duten ekimenak balioetsiko dira, baita alorrean egindako ibilbidea ere.

Entitate eskatzaileen programetako jarduerak bat egiten badute denboran eta espazioan, zaharrenek izango dute lehentasuna.

Entitate eskatzaileen programetako jarduerak antzeko edukia badute, edo edukiak ezberdinak izan arren denboran eta espazioan bat egiten badute eta aurreko paragrafoan bilduta ez badaude, Kultura Zerbitzuak irizpide hauei jarraituko die jarduera aukeratzeko:

- Jardueraren kalitatea.
- Jai programari eta espazioei egokitzea.
- Publiko hartzailea.
- Genero-berdintasuna bultzatzen duten proposamenak, partaidetza orekatua eta gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko balioen aldaketa sustatuz.

Edurne eta Zeledon Txikiren eguneko programa (abuztuaren 7an) talde gehien ordezkatzeko dituen entitate adjudikaziodunak antolatutako du, Gasteizko Udalarekin koordinatuta.

Deialdiaren helburua gorabehera, entitate eskatzaileek garaiz eta behar bezala eskatu beharko dituzte beharrezko baimena eta lizentzia jarduerak espazio publikoan egiteko. Kultura Zerbitzuari egingo zaio eskaera, eta hura arduratuko da Espazio Publikoaren Zerbitzuan behar diren administrazio irizpideak egiteaz.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten entitateek aurrez aurre aurkeztu beharko dituzte programa eta eskabidea herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez —<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>— nahiz legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

- Eskabidea eta oinarrietan eskatutako gainerako agiriak epe barruan aurkeztea.
- 2018. urtean dirulaguntza jaso duten entitateentzat, urte horretako gastuen justifikazioa aurkeztua izatea.

Balioespena: eskabideak balioesteko batzordeak egingo du eskabidea egiten duten elkarteei dirulaguntza esleitzeko proposamena, irizpide hauek baliaturik:

- 60.000,00 euro: zenbateko hori entitate eskatzaileen artean banatuko da, haiek ordezkatzeko dituzten eta musika daramaten blusa eta neska taldeen kopuruaren arabera. Talde bakoitzeko zenbateko finkoa jasoko dute, entitateek guztira ordezkatzeko dituzten taldeen kopuruaren arabera zehaztuko dena.

- 27.000,00 euro: zenbateko hori entitate eskatzaileen artean banatuko da, aurkeztutako jai-programa bakoitzak lortzen duen balioespenaren arabera, irizpide hauek kontuan hartuta:

Programa osatzen duten jardueren kopurua: 10 puntu.

Jarduera kopuru handiena duen programak lortuko du gehienezko puntuazioa, 7. puntuan ezarritako betekizunak betez gero. Gainerakoa modu proportzionalean kalkulatu da.

Irizpide hauek aintzat harturik balioetsiko dira jarduerak, banan-banan: 20 puntu.

- Jardueraren kalitatea: 10 puntu.
- Jardueraren antzintasuna: 4 puntu.
- Publiko hartzailea: 6 puntu.

Programa bakoitzaren jarduera guztiak balioetsi eta batez besteko aritmetikoa kalkulatu da; horixe izango da atal honetako azken puntuazioa.

Atal honetako zenbateko osoa (27.000,00 euro) proportzionalki banatuko da, lortutako puntuazioaren arabera.

9. Laguntza emateko prozedura

Horien helburua kontuan hartuta, oinarrietan ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen dituen eskabide orok jasoko du dirulaguntza, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, kasu bada. Emateko prozedura mistoa izango da: hainbanaketa eta norgehiagoka.

10. Ebatzi eta jakinarazteko epea

10.1 Gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko da prozedura, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

10.2 ALHAOren eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko da dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena.

10.3 Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, udalaren webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahalko da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

11. Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte ezinbestean:

- Dirulaguntza zertarako eman zaien, hartarako baliatzea.
- Dirulaguntza emateko erabakigarri izan diren betekizun eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea Kultura Zerbitzuaren aurrean.

- Eskatutako agiri guztiak ematea Udalari, diruz lagundutako jardueraren jarraipena egite aldera.
- Kultura Zerbitzuak, Gasteizko Udaleko kontu-hartzaitzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatutako informazio oro ematea.
- Diruz lagundutako jardueraren barruan egin nahi den edozein aldakuntza Udalari jakinaraztea. Entitate onuradunek erabaki ahalko dute jardueran aldaketak egitea, eta ekintzak bertan behera utzi ahalko dituzte (zigorrik gabe), baldin eta ezinbestekoa kasua bada, edo gizarte ekitaldi garrantzitsuren batekin elkartasuna adierazteko bada, edo antzeko kasuren bat gertatzen bada.
- Entitate eskatzaileek I. eranskinean sartutako talde guztiak hartu beharko dute parte desfileetan, jai-programa tradizionalari jarraituz.
- Blusen eta Nesken Batzordeak antolatu ohi du 17:00etako joaneko desfilea eta 20:30eko itzulerakoa; beraz, deialdiaren 7. oinarriaren arabera, lehentasuna izango du, entitate eskatzailea bada.
- Horrenbestez, gainerako entitate eskatzaileek entitate horrekin ados jarri beharko dute ordena eta parte hartzeko arauak ezartzeko.
- Adostasunik ez bada, gainerako entitateek aurreko paragrafoetan aipatutako joan-etorriak oztopatzen ez dituen beste alternatiba bat aurkeztu beharko diote Udalari, eta onetsiz gero, jai-programa ofizialean sartuko da, herritarrek horren berri izan dezaten.
- Joan-etorrietan, blusa eta nesken taldeetako kideek jai giroko itxura eman beharko dute nahitaez, musikaz eta dantzaz, eta herritarrak jaira animatu; alkohol kontsumoaren erakustaldi orokor eta gehiegizkoak saihestu beharko dituzte eta eraso eta portaera matxistekin zero tolerantzia izan beharko dute.
- Taldeek kantu matxista eta homofoboak ez abesteko konpromisoa hartzen dute.
- Entitate eskatzaileek I. eranskinean sartutako talde guztiak Indarkeria matxistari erantzuteko Gasteizko Udalaren protokoloan ezarritakoa bete beharko dute, eta hartzen diren neurriak errespetatu, baldin eta Andre Maria Zuriaren jaietan aktibatzen bada.
- Herritarrekiko errespetuagatik, elkarren segidan doazen taldeen artean 20 metrotik gorako hutsarterik ez uzteko konpromisoa hartzen dute taldeek.
- Entitate eskatzaileek desfileetan erabiltzen dituzten ibilgailu guztiak zirkulazioari buruzko araudia bete beharko dute, eta Udaleko Herritarren Segurtasunaren Sailak agindutakoari jarraitu beharko diote horiek mugitzeko.
- Ekialde institutuko aparkalekua erabiliz gero, Udaleko Kultura Zerbitzuak adierazitako ordutegiak eta araudia bete beharko dira ezinbestean.
- Debebatuta dago material piroteknikoa erabiltzea.
- Debebatuta dago edonolako bazterkeria edo desberdintasuna (sexua, generoa, orientazio sexuala, identitate sexuala, arraza, klase soziala, erlijioa... direla kausa) sor dezakeen jarduera oro, musika girotzea barne.
- Aurreko betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza osoa edo zati bat Gasteizko Udalari itzuli beharra ekarri ahalko du berekin.
- Aipatutako betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat, larritzat edo oso larritzat jo daiteke, eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren VII. kapituluan aurreikusitako zigorrak ezartzea ekar dezake.

12. Dirulaguntza ordaintzea

12.1 Dirulaguntza zatika ordainduko da: dirulaguntza osoaren ehuneko 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da, eta gainerako ehuneko 20a jarduera amaitzen denean eta jarduera osoa gauzatu dela justifikatu ondoren.

12.2 Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

12.3 Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu harik eta entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura baten ondorioz zordun bada ere.

13. Dirulaguntzak justifikatzea

Berariazko oinarri hauen goiburuan aipatzen diren oinarri orokorren 13. atalean zehaztutakoaren arabera justifikatuko dira dirulaguntzak. Bertan aipatzen diren eranskinak udalaren webgunean daude eskuragarri, betetzeko moduko formatuan.

Hiru hilabeteko epean justifikatu beharko dira jasotako dirulaguntzak, programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta, edo ematen denetik aurrera kontatuta, gauzatu ondoren emandakoa bada.

Deialdi honetan ez da zeharkako kosturik onartzen, beraz, 5-J eranskinean ez da kontzeptu horri dagokion atala bete behar.

14. Publizitatea

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko dute pertsona eta entitate onuradunek argitalpen orotan, batez ere publizitate- eta komunikazio-euskarrietan, eta berdintasuna, dibertsitatea eta rol-aniztasuna sustatzen dituzten hizkuntza eta irudiak erabili.

Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ildotik, egiten diren emanaldietan, pertsonak ez dira agertuko duintasun handiago edo txikiagoz horniturik sexuaren, orientazio sexualaren edo identitate sexualaren arabera, ezta objektu sexual huts gisa ere. Genero-indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo hartara zirikatzen duten edukiak ere ezingo dira zabaldu. Alegia, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexuen, rolen eta genero-identitateen dibertsifikazioa sustatuko.

Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, gaztelania eta euskara, dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

Aurreko betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza osoa edo zati bat Gasteizko Udalari itzuli beharra ekarri ahalko du berekin.

15. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako dirulaguntza itzularazi ahalko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan:

- Eskabidean emandako datuak edo aurkeztutako agiriak faltsutu egin badira.
- Dirulaguntza zertarako eskatu zen, hartarako erabili ez bada.
- 11. oinarrian eta oinarrietan oro har ezarritako betebeharrak bete ez badira.
- Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 20. artikuluan adierazten diren kasuetan.

Era berean, onuradunek diruz lagundutako gastuen kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko dute.

**I. eranskina**

Entitate eskatzailea osatzen duten eta 2019ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko asmoa duten blusa eta neska taldeen zerrenda

Entitate eskatzailearen izena _____

Taldearen izena	Kide kopurua

Vitoria-Gasteizen, 2019ko _____ aren (e)an.

Izenpea eta elkartearen zigilua



II. eranskina

Erantzukizunpeko adierazpena, 2019ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko asmoa duten blusa eta neska talde bakoitza osatzen duten kideen kopurua betetzeari dagokionez

Eskatzailea

NAN zk.

talde honen izenean eta ordezkari gisa: IFZ:.....

adierazten du oinarri hauetako 5.6 puntuan ezarritako gutxieneko kide-kopurua betetzen duela.

Vitoria-Gasteizen, (e)an.

Izp.:

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa	
Tratamenduaren arduraduna	Gasteizko Udala IFK P0106800F
Tratamenduaren arduradunaren harremanetarako datuak	Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 01008 Gasteiz Tel.945161616-www.vitoria-gasteiz.org
Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak	lopd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren helburua	Blusa eta neska taldeentzako dirulaguntzen kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra baimenari dagokionez
Hartzaileak	Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei utziko
Datuak gordetzeko epea	Emandako dirulaguntzaren azken epea justifikatu eta ordaindu arte
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko ordezkariaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu



III. eranskina

2019ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko entitate eskatzailearen barruan dauden blusa eta neska taldeen jardueren programaren deskribapena

Entitate eskatzailearen
izena _____

Jardueraren izenburua	Jardueraren azalpena	Kokalekua	Urteak Antzinatean	Nori zuzenduta dagoen

Vitoria-Gasteizen, 2019ko _____aren _____ (e)an.
Izenpea eta elkartearen zigilua